

## 8. ORDENANTZA

Nafarroako Aldizkari Ofiziala - 50. zenbakia - Data 1998/04/27

II. NAFARROAKO TOKI ADMINISTRAZIOA

B A R A Ñ A I N

### Publizitatearen udal ordenantza

**1. artikulua.** Publizitatean aritzerakoan izanen diren baldintza, prozedura eta zehapenak arautzea du xede ordenantza honek, hura titulartasun publikoko nahiz udal jabaritik ikusten ahal diren jabetza pribatuko ondasunen gainean egiten bada.

**2. art.** Ordenantza honi doakionean, publizitatea edozein ekintza da, jendeari, gizarte, politika, sindikatu, kultura, lanbide, kirol eta ekonomi arloko jarduerak nahiz kontsumorako eskaintzen diren produktu eta zerbitzuak daudela ezagutarazteko egina.

Zerga aldetik, Publizitatearen gaineko Zerga arautzen duten udal ordenantzetan xedatutakoari lotuko zaio araudi honek arautzen duen publizitatea.

**3. art.** Publizitatea ondoko baliabide hauetakoren bat erabiliz egiten ahalko da:

.Hesia: edozein instalazio geometriko izan daiteke, publizitatearen mezuak adierazteko erabiltzen ahal baldin bada.

.Errotulua: publizitaterako edozein euskarri da, dagoen tokiko lokal edo instalazioaren izena, jarduera eta funtzionamendua ezagutarazteko dena.

.Horma-irudiak eta pankartak.

.Publizitatea hiri altzarietan paratzea: eremu publikoan dauden gauzak publizitatea egiteko erabiltzea izanen da.

.Publizitate mugikorra: motore nahiz abere bidez tiraturiko elementuak erabiliz (ibilgailuak, airekoak, etab.) publizitatea egitea da.

.Bertzelako baliabideak: bertze edozein baliabide, publizitatea egiteko erabiltzen ahal dena, konparaziorako, idatzita, ahoz edo megafonoz propaganda norberak banatzea.

**4. art. Ez da baimenik emanen publizitateko hesiak paratzeko ondoko toki eta baldintza hauetan:**

**1.** Debeku da lehen eta bigarren mailako babesak duten eraikinetan eta horien inguruan bertan publizitateko hesiak paratzea, babespeko eraikina behar bezala ikustea galaraz dezaketen neurrian. (Ikusi Hirigintzako Araudi Orokorren babeseko eraikinen katalogoa).

**2.** Debeku da zuhaitz eta lorategien ondarean hesiak paratzea, baita katalogoan sarturiko elementu berezi eta hiri altzarietan ere (ikus 73. artikulua eta hurrengoak. Hirigintzako Araudi Orokorra).

**3.** Hiriko plaza, lorategi eta berdegune guztietan.

**4.** Eraikin baten jabeei argi edo ikuspegi eskubidea murrizten zaien tokietan, Nafarroako Foru Zuzenbide Zibilaren Bildumako 403. Legeak horren gainean dioenari jarraikiz.

**5.** Ibilgailuendako galtzadetan eta espaloietan, ez eta ibilgailuen edo oinezkoen segurtasuna arriskuan jar dezakeen bertze edozein tokitan ere. Espaloiak ez dauden tokietan ere ez da baimenik emanen publizitate hesiak paratzeko galtzadaren bi aldeetan hiru metro baino

hurbilago. Hori guztia, Nafarroako Errepideen Foru Legeak udalerrian barnako errepideentzat ezartzen dituen mugak deusetan galarazi gabe.

**6.** Inoiz ere hesiek ezin izanen dute eraikin hurbilenaren beheko solairuaren altuera gainditu. Eraikinik ez bada, ez dira bortz metro baino altuago izanen lurretik neurtuta. Bi metrotara bederen egonen da lurretik hesien behekaldeko ertza, eraikinik ez dagoen tokietako hesietan.

**7.** Obren itxituretan baimena emanen da publizitate hesiak paratzeko, horiei datxekiela paratzen baldin badira.

**8.** Hutsik utzitako merkataritzako lokaletako edo behe solairuetako itxituretan paratu behar diren hesiak lokalaren hutsuneen mugen barnean beharko dira kokatu, eraikuntza proiektuan zehazten diren horien barnean, alegia.

**9.** Kanpo aldean erabilera publikoaren menpekotza duten jabetza pribatuko ondasunetan, ez da baimenik emanen publizitateko hesiak paratzeko.

**5. art.** Jabetza pribatuko ondasunetan hesiak paratzeko, Udalaren baimena beharko da aldez aurretik. Udalaren titulartasuna duten ondasunen gainean publizitate hesiak paratzeko baimena, bai eta haiek erabiltzekoa ere, Udalak emanen ditu lehiaketa publikoaren bitartez.

**6. art.** Udalerrri honetan, eremu publikotik ikusten diren errotulu eta iragarki argidunak paratu aitzin, lizentzia eskuratu beharko da, eta hura ordenantza honetan ezartzen diren zehaztapenen ariora emanen.

#### **7. art. Hurrengo tokiotan paratzen ahalko dira errotuluak:**

**1.-**Beheko solairuetan. Errotuluak Eraikuntzaren Ordenantza Orokorretako 128. artikulua laugarren leerroaldean adierazitako baldintzei lotu beharko zaizkie.

**2.-**Lehenbiziko solairuetan, argirako hutsuneetan paratzen ahalko dira errotuluak (leiho edo antzekoetan).

**3.-**Ez da baimenik emanen errotuluak paratzeko, aurretik errandako baldintzak betetzen ez badira, errotuluaren diseinua fatxadaren diseinuaren, osotasunean hartuta, osagarri den eraikinetan salbu.

**8. art.** Ez da baimenik emanen errotulu, horma-irudi edo plakak paratzeko, haien itxura, kolore, marrazki edo idazkiengatik trafiko seinaleekin nahasi, horiek ikustea galarazi edo ibilgailuetako gidariak itsutu baditzakete. Halaber, iragarki islatzaileak edo gai erregarriz eginak direnak oihan edo landaretza handiko eremuetan.

**9. art.** Hiri altzarrietan paratutako publizitatea.

Zerbitzu publikoren bat emateko muntaduetan, publizitatea elementu hauetan bakarrik agertuko da:

**a)** Paperontzietan, faroletan eta publizitaterako zutoinetan.

**b)** Erlojuetan, termometroetan eta jendeari informazioa emateko gainerako aparatuetan.

Eremu publikoan muntadura horiek paratzeko baimena ematen duten pleguetan, neurriez gain, zehaztu behar da zein lekutan paratu behar diren, kasu bakoitzeko gainerako baldintzak eta zenbateko tokia utzi behar duten Udalaren esku, honek egoki ikusten dituen ohar edo iragarkiak paratzeko.

Horma-irudiak aterpe, markesina eta autobusak gelditzeko zutabeetan eta telefono kabinetan ere paratzen ahal dira, aurreko leerroaldean aipatu diren baldintzak bete eta lizentzia eskuratu ondotik.

**10. art.** Publizitate mugikorra: motore edo abereek tiratuta egin behar den edozein publizitateri baimena emateko, egin gogo diren jardueri buruzko txostena aurkeztu beharko da, orduak, publizitate baliabideak, erabili beharreko bitartekoak, etab. adieraziz. Udalak

lizentziak emanen ditu baldin eta publizitatearen mezuak ordenantza honetan zehazten diren baldintza administratiboetara egokitzen badira, eta behar adina bermatzen bada ibilgailu eta oinezkoen zirkulazio egokia. Udalak bere esku izanen du, baimena ematen duenean, zein baldintzatan ematen duen zehaztea publizitatean ari ahal izateko.

**11. art.** Bertzelako baliabideak: lehen aipatutakoez gain, bertzelako baliabideren bat erabiliz publizitatea egin nahi dutenek, egin gogo dituzten jardueri buruzko txostena beharko dute aurkeztu. Udalak baimena emanen du baldin eta ordenantza honetan zehazten diren baldintza orokorretara egokitzen badira eta behar bezala bermatzen badira segurantzaren eta txukuntasuna, eta publizitate jarduerak ez badiete bizilagunei eragozpen edo kalterik ekartzen.

Espreski debekatzen da eremu publikoan propaganda idatzia botatzea.

**12. art.** Horma-irudi eta pankartak: publizitateko horma-irudiak paratzeko baimena emanen da karteldegi, bitrina, erakusleiho edo bertze edozein lekutarako, baldin eta haiek jarri, kendu edo aldatzean ez bada hirigunean begirako erasorik egiten.

Espreski debekaturik gelditzen da horma-irudiak eta pankartak paratzea merkataritzako lokalen erakusleihoen kanpoaldean, etxeen fatxadetan, beheko solairuetan, okupatuak izan ala ez, aldarnio, obren itxituretan eta hiri altzarrietan. Hala ere, salbuespen gisa, Udalak baimena ematen ahalko du horma-irudiak eta pankartak paratzeko, eskatzaileak bere gain hartuz gero haiek kentzeko lana udal administrazioak adierazten dion epean, eta euskarria lehengoratu dela behar bezala bermatuz gero. Horrelakoetan, nahitaezkoa izanen da Udalak kasu bakoitzean erabakitzen duen fidantza gordailuan uztea, baimenak markatzen dituen baldintzak behar bezala bete daitezzen bermatzeko.

**13. art. Kasu bereziak: ordenantza honetako aginduak ondoko gertaerak sorturiko baldintza berezietara egokitu edo moldatuko dira:**

- a) Hauteskunde kanpainak.
- b) Herriko bestak eta Egoberrietakoak.
- c) Kirol eta kultur ikuskizunak, ohiko ez direnak (txirrindula itzulia, kultur topaketak, etab.)
- d) Garrantzi eta eragin berdintsuko bertze gertakizun batzuk.

Udalaren baimena beti ere beharko da, eta beharrezko segurtasun baldintzak, ibilgailu eta oinezkoen zirkulazio egokia, eta osasungarritasun eta txukuntasun publikoa bermatzera mugatuko da.

**14. art. Baldintza tekniko-administratiboak:**

**1.** Eraikuntzen babesik gabe kokaturiko publizitate euskarriek ehun eta hogeita hamar kilometroko haizea jasan beharko dute, eta hori aditu eskudunen batek sinaturiko txosten teknikoaren bidez frogatu beharko da.

**2.** Elementu argidun edo mugikorrek dituzten publizitate hesi eta errotuluak paratu ahal izateko, aurretik Industria Ministraritzako Herrialdeko Ordezkaritzaren oniritzia beharko da, edo eskumena hartzen duen Foru Komunitateko Erakundearena.

**3.** Publizitateko elementu bakar batek ere ez du bere itxuragatik nahasketarik sortuko trafikoko seinaleekin edo bide seinaleen elementuekin, zutikako nahiz etzandakoekin.

**4.** Hots bidezko publizitatea, goizeko bederatzietatik arratseko hamarrak bitarte bakarrik egiten ahalko da, eta GOKA Jardueren Udal Ordenantzaren 9.2 artikuluan ezarritako hots mailak betez egin beharko da beti.

**5.** Publizitateko proiektzio finko nahiz mugimenduzkoak debekatuko dira, haiek ikustera bildutako jendeak ibilgailu edo oinezkoen zirkulazio egokia tratatzen duela uste bada edo horrela dela ikusiz gero.

**6.** Argiak erabiltzen dituzten publizitate jarduerak ez dute inor itsutu behar, ezta begietan nekea edo ongieza eragin ere. Arrazoi horiek direla eta ezetza ematen bada, hura frogatzen duten udal teknikarien txostenetan beharko da oinarritu.

**7.** Argi bidezko publizitateak ezin izanen ditu muga hauek gainditu:

.Lurretik goiti 5 metrotan, gehienez ere 4.000 kandela metro karratu bakoitzeko. Tarte horretan ezin izanen dira itzal-piztuka dabiltzan argiak ezarri.

.Modu berean neurturiko altuera 5 metrotik goitikoa bada, baina 10 metro iragan gabe, gehienez ere 5.000 kandela metro karratu bakoitzeko onartuko da itzal- piztukako argientzat.

.Altuera, modu berean neurtuta, 10 metrotik goitikoa denean, argitasunak muga horiek gainditzen ahalko ditu.

**8.** Edozein sistema mugikorrez egindako publizitatea goizeko bederatzietatik arratseko hamarrak bitartera mugatuko da. Ibilgailuek edo publizitatea eraman behar duen bertez edozein elementuk Industria Ministraritzako Herrialdeko Ordezkaritzaren baimena beharko du izan. Publizitate mugikorra hots bidezkoa bada, zerbitzu teknikoek erabakiko dute hura baimendu ala ez, horien zeregina bizilagunei trabarik egin ez dakien bermatzea baita.

**9.** Ez da inoiz baimenik emanen publizitatea egiteko, ez badira behar adina bermatzen muntaduraren segurantza eta funtzionamendua, ibilgailu eta oinezkoen segurantza, kokatzen den tokiaren txukuntasuna, bizilagunen lasaitasuna eta segurantza, ezta partikularrek izan ditzaketan ikuspegi eta argi eskubideak betetzen ez direnean.

**15. art.** Lizentzien izapidaketa.-Lizentziak emateko, xedapen orokorrei eta ondotik adierazten direnei jarraituko zaie:

**1.** Pertsona natural zein juridikoek beharko dute eskatu beren jabetzako ondasunetan egin behar dituzten jardueren publizitaterako edo, bertzenaz, erregistro orokorrean inskribaturiko publizitate etxeek.

**2. Baimenaren eskaerari agiri hauek erantsi beharko zaizkio:**

.Publizitaterako jarduera, baliabide, ordu, etabarrak azaltzen dituen txostena, ordenantza honek eta aplikagarri suerta daitezkeen arauak ezarritako zehaztapenak beteko direla frogatuko duena.

.Elementu finkoak jartzekotan, haien azalpena ematen duen txostena erantsi beharko da, neurriak, muntaiaren sistema eta zehazki zein tokitan paratu behar den adierazteko, haizearen indarra jasateko behar den egituraren justifikazio teknikoarekin batera.

.Oinplanoaren eta altxaeraren planoak, instalazio osoaren proiektzioak, lur gainekoak nola parametro bertikalen gainekoak, adierazteko modukoa, edo haren kokaera zehatzaren eta ingurunearen argazkia.

.Erantzukizun zibilaren aseguru poliza, publizitate jarduerak inori sortu ahal dizkion kalteak ordaintzeko.

**3.** Eskaerei buruz, Udalaren zerbitzu teknikoek, zeinek zein behar duen, haren txostena egingen dute, zernolakoa den baimena behar duen jarduera, hari begiratuz.

**4.** Jabetza eskubideak salbu utziz eta hirugarrenei kalterik egin gabe emanen dira baimen edo lizentziak.

**5.** Publizitate kanpaina zehatz batean aritzeko lizentziak, halako epe baterako emanen dira.

**6.** Publizitate hesi eta errotuluak paratzeko lizentziak mugaegunik gabekoak izan daitezke, eta ohiko iraungitze bideez gain, hiru hilabete iraganez gero erabili gabe, bere indarra galduko dute eskatzailearen erruz bada. Gainera, lizentzia emateko garaian tokia inguruabarren ariora baimendu baldin bazen, inguruabar haiexek desagertuz gero ere bertan behera geldituko dira direlako lizentziak.

## **16. art. Zehapenak:**

Ordenantza honetan xedatutakoaren aurkako arau- hausteeek honako neurriok ekarriko dituzte:

**1.-**25.000 pezetarainoko isuna, arau-haustea nolakoa den. Hirigintzako arauen aurkako arau-haustea baldin bada Lurzoruaren Legean eta Hirigintzako Diziplinaren Arautegian xedatutakoari jarraituko zaio.

**2.-**Gordailuan utzitako fidantza galtzea, horrelakorik egin bada.

**3.-**Iragarkia kendu beharra, hutsegilearen kontura zortzi egun baino lehen.

**4.-**Lizentziaren titularrak du erantzukizuna, baimendutako publizitate jarduerak ekar ditzakeen kalteetan. Udalak partikularrari egozten ahalko dizkio gauzak lehenengoratzeko lanek sortzen dituzten gastuak.

**5.-**Ordenantza honen aurkako hutsegiteen erantzule izanen dira:

.Lehenbizi, publizitate enpresa edo pertsona fisikoa zein juridikoa, lizentziarik eskuratu gabe iragarkia paratu edo lizentzian ezarritako baldintzak edo ordenantza honetako aginduak bete ez dituen.

.Haien ordeztu, iragarkiak zer eraikinetan edo muntaduretan paratu diren, hurrenez hurren, harexen jabea edo horrexen kontzesioa duena.

### **AZKEN XEDAPENA**

Ordenantza honek Nafarroako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitara eman eta biharamunean hartuko du indarra.

Barañainen, mila bederatziehun eta lauretan hogeita hemezortziko martxoaren bederatzian. Alkatea, Juan F. Calderón Blanco.  
(1998ko apirilaren 27ko NAO, 50.a)